

Perigolan

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2013ko ekaina / 10. zenbakia



Bihotzeko parkea

Pergolako oroitzapenak

Pergola hitz berria da nire belaunaldi-koontzat. Ez genuen pergolarik eza-gutu, ez egungo ikastolan, ez egungo eraikinera iritsi aurretik pasatu genituen guztietan: ez ikastola txikian, ez frontoiko kalezuloko lokalean eta ezta maisu etxean ere —kultur etxea dagoen lekuan—. Eskola txikiko sotoan, frontoian eta kultur etxe atzeko plazan jolasten ginen —Arrastaluk artelan bihurtu aurreko garaiak ziren—; ahal genuen lekuan, ahal genuen moduan.

Egungo ikastolara iritsi ginenean, 'periferiako' jolasleku guztiak pasatu genituen, atsedendietan patio nagusian jolasteko eskubidea izan aurretik. Mailaketa zegoela konturatu ginen. Zaharrenek agintzen zutela, alegia. Indartsuenaren legea.

Hasieran jolasa zen: dozena batetik gora lagun —barkatu, mutil— baloi baten atzetik. Hain simple, hain zoriontsu. Neskak 'periferiaren periferiara' kondentzen genituen. Patio nagusira iritsi ginenean, ordea, jolasak joko bihurtu ziren, atsedendia maila ezberdinen arteko lehiaketa, ohorea jokoan.

Dena ez zen futbola, eta dena ez zen ikastolako patioa. Ikastolan adina ikasten genuen ikastolatik kanpo, kalean. Kalea zen gure pergola erraldoia eta mugagabea. 'Zaharruno' jarrita, gogoeta bat: orduan bai 'ukitzen' genuen bizitza benetan, ukimen pantailarik gabe.

Jakes Goikoetxea



“Umeek uste dute ni naizela ikastolako nagusia”

Ikastolako langile eta ikasle ohi den Bittorri elkarrizketa egitea egokitu zaigu oraingoan. Ikastolan aritutako aurrenetako ikaslea izan da, eta urte batzuk geroago bertan lan egitea ohorea da berarentzat. Badakigu inork baino hobeto ezagutzen dituela ikastolako langile eta ikasleak, baita erai-kin berria ere. 7 urte daromatza ikastolan lanean; arratsaldero eta goiz batzuetan ikus dezakegu hainbat eginkizunetan: pintaketan, konponketan, zenbait ekitalditan antolaketa-lanetan, atezain...

Txikiek esaten dute ikastolako jefia zu zeu zarela. Zer diozu horri buruz?

Umeek uste dute ni naizela ikastolako nagusia. Ikusten nautenean, batak besteari esaten diote: “Begira, hori da ikastolako jefia”. Baina hori ez da horrela (barreak).

Zein irakasgai zenuen gustukoaren ikasle garaietan? Eta irakaslea?

Irakasgai gustukoena matematika nuen, eta irakaslea Mentxu. Nahiz eta harrigarria irudituko zena, berak ematen baitzidan matematika. Gainerako irakasgaietan gaizki moldatzen nintzen, matematika salbuespena zen.

Gure lagun bat ikastola eta ikasketak pikutara bidaltzekotan dabil. Zer esango zenuke?

Nik gomendatuko nioke lehen mailako ikasketa titulua (*Graduado*) ateratzeko; izan ere, hori gabe ezingo du inora joan, ezta lanik egin ere, ia toki guztietan exijitzen duten gutxieneko baldintza hori baita. Nahiz eta bere esku egon ikasketak utzi edo ez, nik jarraitzeko esango nioke, kostata bada ere, *Graduadoa* eskuratu arte, behinik behin.

DBH-4ko ikasleak



Lehenengo urtean olinpiadetako kirolekin hartu genuen gozatua.

Zer asmatuko dute aurten?

Ilara luzea osatzen ari da kiroldegiko sarreran. Hamarrak eta laurden. Eskerrak ekaineko bigarren igande honetan eguraldi eguzkitsua dugun. Ikasleen gurasoak, aitona-amonak, osaba-izebak..., guztiak txintxo-txintxo atek noiz irekiko zain. Bere garaian, egun gogoangarri honetan parte hartu zuten ikasle ohiak ere bai tartean, garai hartako oroitzapen eder haiek berritzera etorrita.

Argazki- eta bideo-kamerak barra-barra, turista japoniarrak ote? Ez, ez, ikasleen jarduna ondo gorde beharra dago, ikuskizun aparta eskaintzen baitute beraien seme-alabek. Zer asmatuko ote dute aurtengoan? Horixe da ilaran zain daudenek elkarrri egiten dioten galdera.

Urtero-urtero sormenaren errotari itzuli bat gehiago ema-

ten diote ikastolako irakasleek. Lehenik eta behin, ikuskizunaren gaia asmatu, ez nolanhikoa, ez sakondu gabekoa, ez, esan-guratsua izan behar du: euskal musika, artea, hizkuntza(k), ingurumena, elkartasuna... Gaiak ikastolaren ezaugarri garrantzitsuenekin lotura izan behar dute.

Ondoren, Haur Hezkuntzako 12 gela eta Lehen Hezkuntzako 15 gelentzako gidoia, musika, dantza eta koreografia egokiak sortu behar dira. Gaiarekin lotura duten musika eta abestiak han eta hemen bilatu. Gero, egokitu, moztu, elkartu, nahastu, soinuak erantsi... Jarraian, gelan, pergolan, kiroldegian edo psikomotrizitate gelan, hainbat eta hainbat entsegu egiten dituzte. Eta, bitartean, ikuskizunarekin bat egiten duen atrezzoza

prestatzen dute ikasleek eta irakasleek: soinean eramango dituzten jantziak, ikuskizuna girotuko duten elementuak, eta eszenatokirako beharrezkoak diren osagai guztiak.

Aurtengo sormenaren errota horretatik, zer aterako ote da? Den-dena ezin da esan; baina, aurrerapen gisa, horra hainbat aztarna: Haur Hezkuntzako ikuskizunak oinez dabilzan zuhaitz eta loreak izango ditu protagonista; hegan ez, baina dantza egiten dakiten erleak ibiliko dira hara eta hona, eta usain goxoa zabalduko dute kiroldegi osoan. Lehen Hezkuntzako kresalaren usaina ekarriko dute, busti egingo dira, eta alaitasunez lanbrotuko dituzte ikusleen begiak. Saltola ibiliko dira izurdeak, besarkadak ematen

olagarroak, ezpatarrainek bihotzak urratuko dituzte, eta izango dira guztion arimak lapurtuko dituzten piratak ere.

Ohikoa denez, Ikastolaren Eguna aprobetxatu nahi izaten da ikastolari hainbeste eman dioten pertsoneri eskertza xumea egiteko, ikastola osatzen dugun guztion partez. 25 urteko dedikazioa, erabateko inplikazioa, egunez egun ikasle, guraso eta lankideekin ereindako baratza oparoa. ZORIONAK eta ESKE-RRIK ASKO, Marisa!

Hamaikak puntuan! Has-tera doa! Harmailak leporaino beteta daude, ez da euli bat bera ere sartzen! Tolon-tolon! Tolon-tolon!... Badatoz DBHko ikasleak ttuntturroekin.



Idurre Azkune irakasle lanetan.

Gurasoak gelan

Bukatzean dagoen ikasturte honetan, *Gurasoak gelan* izeneko ekimen erakargarria jarri da martxan ikastolan. Zenbait guraso euren seme-alaben ikasgeletara joatera animatu dira; horietan, hainbat lanbide, afizio nahiz gauza interesgarriren inguruan solasaldi entretenigarriak izan dituzte ikasleekin.

Idurre Azkune, esaterako, horrela mintzatu zaigu berak izandako esperientziak: “Lanbidez medikua naiz, eta horren inguruan ez nekien zer kontatu zortzi urteko neska-mutilei. Buruhaustearen argibidea Oier semeak eman zidan. Herriko horma batean, Eskorbuto hitza irakurri, eta sarritan galdetzen zidan bere esanahiaz. Une horretan *Isasoa* gaia lantzen ari ziren gelan; hala, itsasgizonek jasandako gaixotasuna bitarteko, barazki eta fruta jatearen beharraz eta garrantziaz mintzatu nintzaion. Ikasleek arreta handiz jarraitu zituzten azalpenak, eta handik egun batzuetara ere eskorbuto hitza entzuten nuen pergolan semearen gelako ikasleentzat ahoetatik.

Guraso guztiek dugu zer kontatu, eta ikasleak entzule bikainak dira. Beraz, aprobeitza dezagun emandako aukera”.

Ikasleentzat ere esperientzia berria izan da. Ama irakasle lanetan ikusteaz, hauxe esan digu Oierrek: “Hasieran urduri nengoen amak gelara etorri behar zuelako, baina gero oso ondo pasatu genuen gaixotasunen izen arraroak errepikatzen. Gelakoek asko ikasi zutela esan zidaten”.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK



Zuhaitz honek irudikatzen du ikastola zer den, eta noruntz joan nahi duen.

Noruntz joan behar du ikastolak?

Nora doan ez dakien ontzia ez omen da inoiz helmugara iristen. Horretan aritu dira, hain zuzen, ikastolako 26 kide; Orioko Herri Ikastolak datozen 3-4 ikasturtetan zein norabide hartu behar duen aztertzen, alegia. Irakasleak, langileak, gurasoak eta Zuzendaritza taldeko nahiz Artezkaritza Kontseiluko kideak ikastolaren jarduna hobetzeko gogoeta estrategikoa egiten aritu dira, 3 orduko 6 saioetan.

Horrenbestez, gustatuko litzazigukeen ikastola izatera iristeko, zein norabidetan jarri beharko dugu lema 2016. urte bitartean? Hiru koordenatu nagusi ezarri dira jomugan.

Ikastolak gaur egun duen hezkuntza eredua:

- Gaur egun lantzen den hezkuntza ereduaren aurrean, bide berriak esploratu eta urratzeko premia ikusi da. Egiten dugunari goitik beherako eta behetik gorako berrikustea egin behar zaio.
- Egungo hezkuntza eredutik kompetentziatan oinarritutako hezkuntzara igarotzea beharrezkoa da.

Gurasoen partehartzea seme-alaben hezkuntzan hobetu behar da:

- Ikastolaren eta familiaren esparruak oso lotuta daude: batean zein bestean egiten denak eragiten du ikaslearen hezkuntzan. Beraz, bien arteko elkarlana KOHERENTE bada, ikaslearen hezkuntza eta

garapena hobetzeko lagungarri izango da.

Kooperatiba-Auzolana:

- Hezkuntza komunitate osoak ikastola BIZITZEA nahi dugu; lehenik ezagutu, eta ezagutzarekin batera zaindu eta maitatu.
- Kooperatibaren ezaugarri diren elkarlana eta elkartasuna presentego eduki nahi dira.
- Kooperatibaren abaintaila guztiak aprobeitatu nahi dira, kudeaketarako autonomiatik hasi, eta gizartean auzolanaren eta elkartasunaren balioak transmitzeraino.

Horrtax ikastola hobetzeko jarri diren 3 eronka nagusi. Guztion laguntza beharko dugu denon den ontzia hiru portu horietara eramateko. Egin dezagun elkarrekin arraun!

Kilometroak 2014ko leloa

2014ko urriaren 5ean, Orion ospatuko den Kilometroak jaiaren leloa asmatzeko, ikastolak herritarrei eskatu zien laguntza. Jende ugari hartu zuen parte, eta guztira 48 proposamen jaso ziren. Horrenbestez, lerro hauen bidez, ikastolak eskerrik beroenak eman nahi dizkie guztiei. Hori bai, aukeraturako leloa sekretupean gorteko da 2013ko azarora arte.

Eskola kirolean maila bikaina

Gure ikasleek izugarritzko maila erakutsi dute aurtien ere kirolean. Saskibaloian 5. mailako mutilak eta 6. mailako neskek txapeldunak; 5. mailako neskek, berriz, txapeldunorde. Eskubaloian 5. mailako mutilen bitaldeak finalean: batzuk txapeldun, eta besteak txapeldunorde; 6. mailako neskek, berriz, txapeldunorde. Txapeldunak ala ez, parte hartu duten guzti-guztietan, ZORIONAK!

10 urte Oteitza hil zela

Jorge Oteitzaren heriotzaren 10. urteurrenean, ikastolako ikasleek zenbait obra landu dituzte omenaldi gisa. Oteitzak egindako artelanak eskala txikiagoan egin dituzte: Arantzazuko elizan ageri diren 14 apostoluak, hutsunea irudikatzen duten eskulturak... Denak ikusgai izango dira ekainaren hasieran egingo den erakusketan.

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza, halaxe dio Xalbadorren bertso ezagunak. Arratsaldeko 16:30ean ikastola ingurua taupaka hasten da. Taupaka bizi-bizi Orioren bihotza. Haurrek jolas eta gurasoek solas, Orioko bihotzeko parkean.

Bihotzeko parkea



Txikiak parke barruan ibili ohi dira: txirrista, otarra eta perretxikoak dira beraien gustuko jolasak.

16:30 Atera dira haurrak eta gaztetxoak ikastolatik. Irakasleei eta ikastolari bakea eta lasaitasuna iritsi ahala, gerra datorkio parkeari. Ikastola biribilean inguratu dute eguneroko jolasaldiek eta solasaldiek. Pergolako restopean meriendatu, indarberritu, eta badoaz motoak, baloiak, patineteak, bizikletak... Orioren bihotza balitz bezala, taupaka eta taupaka hasi da ikastola ingurua. Taupaka plazoleta, ibai ertzeko parkeak, pergola eta kiroldegi aurrea. Baita DBH aurreko kirolgunea ere. Ikastola bizitzeko grinaren biribilak biltzen du arratsaldero, eguraldiak laguntzen badu, behintzat.

Eta bizitzaren korro edo biribiltxo horrek iraganeko biribiltxo haietara garamatza. Ikastolaren 40. urteurrenaren

karietara egindako *40 urte mantalak lotzen* liburan kontatzen da: biribilean hasi zen ikastola. Elizako saloian batu ziren lehen 24 haur haiek elkarri biribilean lotzen zizkioten botoiak. Mantalak bereziak ziren, atzean botoiak zituzten horietakoak; eta, hala, biribilean jarrita, nik zuri, zuk hari, hark besteari eta besteak niri. Biribilean, bueltan-bueltan elkarri lagunduz. Elkarrekin eta elkarrentzat. Horrela hasi zen ikastolaren ipuina. Eta horrela jarraitzen du.

Ikastola aurreko parkean bizitza bizi da. Hori da oriotar askoren bihotzeko parkea. Egiari zor, leku pribilegiatuan dago ikastola. Dena dago eskura. Dena dago erdian. Dena dago hor.

Haurrak merienda amaitu

ezinda, eta gurasoak atzetik korrika ogi puska eskuan dutela. Eta askotan gertatzen dena, umeak nahi ez duela, eta aitzakia horrekin dena barrura. Aspaldian horrelako txorizo panplona puskarik jan gabe!

17:00 Eskola orduetatik kanpoko jarduerak hasi dira. Parkea bete-betea zegoen, baina hustaldi ederra hartu du. Nirea igerilekura, zurea judora, berea musika eskolara, dantzara... Orduerdiko merienda eta euforiaren ostean, berriz ere diziplina da nagusi. Bostak bost minutu gutxiagotan parketik aterata nahikoa da, gainera: kiroldegia bi pausora dago, dantza pergolan bertan, eta musika eskolara bi minutuko bidea. Dena dago gertu.

Txikiak geratu dira parkean.

Bakoitza bere postuan. Plazoleta inguratzen duen hormigoizko koskak eta egurrezko bankuak ederki ezagutzen ditu gurasoen ipurdiak. Eta orain arte jolasaren ordua izan bada, orain solasaren ordua da. “Gurea jangelan oso gaizki portatu omen da gaur”,

Ikastola aurreko parkean bizitza bizi da. Hori da oriotar askoren bihotzeko parkea. Egiari zor, leku pribilegiatuan dago ikastola. Dena dago eskura. Dena dago erdian. Dena dago hor.



Gurasoak hitz egiten egon ohi dira haurrak jolasean dabiltzan bitartean.

edo “Orioko maiatzeko garga- azokan, zer moduzko zerebeza?”, “Aurten uztaileko udalekuean ere izena eman beharko dugu, ba?”, “La verdad, nosotros todavía no hemos decidido lo que vamos a hacer”... Haurren aitzakian lagun berriak egiten dira parkean, kuadrilla berriak sortzen dira; hainbeste ordu ematen ditugu bertan!

18:00 Akabo bakea. Badatoz berriz soldadutxoak beren jostailu eta traste guztiekin ondo pasatzera eta gerra ematera. Eta beti bestearena nahi. Hori ere marka da gero! Beti ondokoaren motorra, bizikleta edo baloia behar! Gizakiaren berezko joera bat izango da. Baina polita da hori ere. Bihotzeko parke honetan bihurrikeriak egiteaz gain, bihotz onekoak izaten ere ikasten dute. Dugu. Denbora elkarrekin pasatzearekin batera, jostailuak elkarri uzten ikasteko eta sozializatzeko lehen pauso horiek emateko, gune garrantzitsua da parkea. Ikastola inguratzen duen biribil bizi hori. Gurasoek bezalaxe, haurrek ere segituan antolatatu dituzte beren kuadrillatxoak, taldetxoak eta jolasak. Kurioso da lekuaren erabilpena:

parkearen barruan, bost urtetik beherako haurrak ibiltzen dira, atarrapuka dabiltzanak, eskua emanda dabiltzanak, eta joku sinbolikoan dabiltzanak: “Ni orain otsoa”, “Ni orain ama eta zu umea”. Haundixeagoek plazoleta okupatzen dute. Onartu dezagun, baloia da izarra. Askotan bi futbol zelai sortzen dira, bost urte ingurukoak eta zazpi ingurukoak. Onartu dezagun, baloiarekin gehien jolasten direnak mutilak dira. Eta onartu dezagun, mutiko bat futboleant abila bada, sozializazio horretako bide erdia egina du. Zerbait horretan ona delako, bada norbait. Horri ere buelta pare bat ematea komeni akaso. Jolaserako espazioak neska-mutilen artean hobeto banatzea interesgarria litzateke, beraien hezikuntza hobeto garatzeko. Aisialdia askatasunaren eta gozamenaren eremua da. eta aske izatea ez da beti guk nahi duguna egitea. Kluba egiten dute 7 eta 8 urtekoek Karela kanpoan, beraien sekretuak, beraien munda. Hirugarren mailatik gorakoak, berriz, futbol zelai txikira pasatzen dira, DBH aurrean dutena. Handiek, berriz, eremu zabalago bat hartzen dute U-ko

parkea, tirolinako parkea...; badira Karela atzean ezkututzen diren bikoteak ere; gertu, baina ezkutatuta ere egon baitaiteke.

19:00 Zazpi aldiz jo du kanpaiak. Hasi dira txikiak etxera eramateko lehen ahaleginak. Negarrak, purrustadak eta esaldi izarra: “Besteak hor geratzen badira, zergatik joan behar dut nik etxera?”. Eman buelta horri, ja! Negoziazio asko goxoki dendan konpontzen dira. “Baina goxokiak ez al dira, ba, ostiraletan bakarrik jaten?”. Eguna luzeagoa denetik, zailagoa da ardiak etxera biltzeko misioa. Jolasean dabilenari orduak labur, eta zain dagoenari luze egiten zaizkio.

Gure bihotzeko parkea pixkanaka husten ari da. Ikastolako argiak ere itzaltzen ari dira egunarekin batera. Garbitzaileak ikusten dira gela barruetan lanean, edo pergola zeharkatzen erratzak, fregonak eta trapuak hartuta. Hormigoizko bankuaren *over bookinga* amaitu da, gutxi batzuk geratzen dira, haiek parkea ixteko ardura omen dute-eta. Baloia bat ahaztu zaio norbaiti, hantxe geratu da ikastolako paretaren kontra.

Zazpi aldiz jo du kanpaiak. Hasi dira txikiak etxera eramateko lehen ahaleginak. Negarrak, purrustadak eta esaldi izarra “besteak hor geratzen badira, zergatik joan behar dut nik etxera?” Eman buelta horri, ja!

Ekaitzaren ondoren dator barealdia. Eta bihar berriz eguzkia irtengo da gure bihotzeko parkean. Ikastola bizitzeko grinak inguratuko du berriro. Eta gogoratuko gara nondik datorren ikastola; elizako saloian jolastetik, ikastola txikiko azpiko gelan jolastetik, Errastineko gelatan eta frontoi inguruan jolastetik Orioko bihotzean jolastera. Eta solastera. Ai, gure bihotzeko parkea!

“Niretzat ohorea izan da gurasoak entrenatzaile lanetan ikustea”

Realeko bigarren denboraldia eta bigarren batxilergoko ikasketak uztartzen dihardu Ainarak. Urte gogorra bizi ari da, baina, hala ere, ez dio huts egin Pergola aldizkariko tarteari. 17 urte besterik ez, eta harrigarria da daukan heldutasuna eta jartortasuna; eredu aparta da kirolari gazteentzat.

Ikastolan eman zenizkion baloiari zure lehen ostikadak. Zer oroitzapen datozkizu burura?

Lehenengo urtean mutilekin jokatu nuen, nire gelako neskarik ez baitzen animatu. Hortik aurrera urte zoragarriak bizi izan nituen, 3 finalez gozatzeko aukera izan bainuen; gainera, garai haietan aita nuen entrenatzaile.

Eskola kirolean dabiltzan asko eta askoren borondatezko lanak hori da hori ilusioa pizten duena ikasle gaztetxoaren artean, ezta?

Bai, txalotzekoa da. Ni ere jardun nintzen, baina orain denera ezin naiz iritsi. Niretzat ohorea izan da gurasoak entrenatzaile lanetan ikustea, aita futboleko eta ama saskibaloian.

Orioko futbol taldera igaro zinen ondoren, eta bertan egindako lanarengatik Realera. Jauzi handia izan al zen zuretzat?

Izugarria. Hala ere, entrenamendu aldetik baino jauzi handiagoa nabaritu dut diziplina aldetik. Realean, min hartutako taldekideak ere entrenamendu guztietara joaten dira; konpromisoa erabatekoa da. Jokatzeko erritmoak ere ez dauka zerikusirik.

Nola ateratzen du bizimodua emakume futbolari batek?

Taldekide guztiak dihardugu



Iker Gozategik atera die argazkia bi futbolari handi hauei.

Ainara Manterola

ikasten edo lanean; pentsa, 1000 euro irabaztera iristen denak izugarritzko pagotxa dauka.

Merezi al du esfortzu horrek guztiak?

Oso gustuko dut hau, eta honetan jarraituko dut. Aurtengo urtean asko sufritu arren, Euskadiko taldearekin fase finalera iritsi, eta Espainiako 19 urtez azpikoen taldeaz disfrutatzeko aukera izan dut.

Goren mailan jokatzea ederra da, baina asteburuan partida Huelvan izan, eta astelehenean bi azterketa egin beharra gogorra da, ezta?

Etetik larunbat goizean irten, eta igandean iluntzeko ordu bietan iritsi nintzen. Pentsa, egin zuen eguraldiarekin, taldekideak Huelvatik zehar paseatzen ibili ziren, eta ni hotolean biologia ikasten!

Ikasle ona eta futbolari mundiala, non dago sekretua?

Eguneroko antolaketa funtsezkoa da. Esfortzu handia da eginbeharrekoa, askotan entrenamendu ostean ere ikasten jartzea egokitzen baitzait; hala egin ezean, ezingo bainituzke azterketak gaingitu.

Ikusleen berotasuna ur bizi-garria zaizue.

Zubietan betikoez ez digute huts egiten, eta horrek asko indartzen gaitu. Beste zelaietan ez da hainbeste jende ikusten. Eta bitxikeria moduan, bada Leganeseko familia bat gure kanpoko partida guztietara etortzen dena. Izugarria!

Realaz gain, zer eskatzen dio Ainarak bizitzari?

Ingurukoez gozatzeko eta aste-

buruak gehiago aprobetxatzeko denbora gehiago.

Eta, bukatzeko?

Eskerrik beroenak hainbeste merezi duten aita eta amari, beraien babesagatik izan ez balitz, ez bainuke Realean egotea lortuko. Eta kirolean dabiltzan gaztetxo guztiei, lanean jarraitzeko esango nieke, nik ere ez bainuen uste honaino iritsiko nintzenik.

Ainhoa Mateos

Di-Da batean

Futbolari bat: Irene Paredes eta Carles Puyol.

Leku bat: Hondartza.

Plater bat: Entsalada eder bat.

Liburu bat: Batxilergoko apunteak.

Zure une gozoena futbolari gisa: Realarekin fitxatu nuena.

Zure une gazierna futbolari gisa: Urte hau oso gogorra izan da.

Munduan zerbait aldatzerik bazenu: Injustizia guztiak ezabatu, eta lapur guztiak kanporatuko nituzke.

Etorkizun oparoa dauka Ainarak. 17 urterekin emakumezkoen futboleko goren mailan jokatzeari gain, Euskadiko taldeko kapitaina izatea eta Espainiako 19 urtez azpiko taldearekin aritzea erdietsi ditu. Baina, hori guztia ez luke lortuko, bere profesionaltasun eta umiltasunarengatik izan ez balitz. Bejondeizula Ainara, jarraitu horrela urte askoan!



Laster arte, lagunok!

Gogoan dugu bi urterekin
hasi zen talde maitea
hamalau urte pasa ondoren
dagokizue joatea
Nahiz eta jakin hau dela zuen
bizitzarako atea
asko kostatu behar zaigu orain
zuei agur esatea

Lehen kantua, lehen azterketa,
lehen hitzak, lehen gola
hainbeste une bizi ondoren
borborka dugu odola
Adaska izan zineten baina
laster zarete arbola
segi bidean eta ez ahaztu
hemen dago ikastola

Agenda

EKAINAK 9, igandea

IKASTOLA EGUNA

10:00 Ttuntturroak herrian zehar.

11:00 Jaialdia Karela kiroldegian.

12:30 Hamaiketako ikastola aurreko plazan.

EKAINAK 19, asteazkena

19:00

Europar Kooperatiba Elkartearen bigarren
batzarra, ikastola aretoan.

EKAINAK 20, osteguna

19:00

Orioko Herri Ikastolako Ezohiko Batzarra,
ikastola aretoan.

EKAINAK 30, igande goiza

5. Triatloi herrikoia ikastola inguruan.



kutxa